



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaleteko Udala

Onetsi familia ugariak diren Portugaleteko herritarrei emateko dirulaguntzen oinarri-arauak.

Portugaleteko Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkuran honako arau hauek onetsi ditu, besteak beste:

Portugaleten, 2023ko martxoaren 31n.—Alkatea, Mikel Torres Lorenzo

**FAMILIA UGARIAK DIREN PORTUGALETEKO HERRITARREI
EMATEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI-ARAUAK****1. artikulua.— *Dirulaguntzen xedea eta definizioa***

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) eta 28.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, oinarri hauen xedea da gehienez 200 euroko zenbateko dirulaguntzen emakida arautzea.

2. artikulua.— *Onuradunak*

Portugaleteko udalerrian erroldatutako pertsonak jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, baldin eta familia ugaria osatzen badute eta hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. artikulua.— *Onuradunen eskakizunak*

1. Portugaleteko herritarra izatea, udal erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna izanik, dirulaguntza hauetarako eskabidea aurkezteko unean.

2. Familia ugarien titulu ofizialaren kide titularra izatea, eskabidearen datan behar bezala eguneratua.

3. Familia-sarrera garbien kontzeptuan, edozein kontzepturengatik, 63.095,04 €-ko kopurua ez gainditzea, hau da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/08 Legean (2023ko martxoaren 29tik aurrerako ondorioekin, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak aurrekoa indargabetzen du) eta hori garatzen duten dekretu eta zirkularrek pentsionista motako bizikidetzaren unitate batek jaso dezakeen gehieneko zenbatekoaren bikoitza ez gainditzea.

4. Ezin dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarren batean dauden pertsonak.

5. Udal-zergak eta tasak egunean ez izatea.

4. artikulua.— *Dirulaguntzen zenbatekoa*

Oinarri-arauak beteten dituzten udal laguntza hauek gehienez 200 euroko zenbatekoa izango dute.

Edonola ere, dirulaguntzak aurrekontuaren dirusailaren menpe egongo dira beti eta eskatzen den kopurua urteko aurrekontuaren baino handiagoa bada, hauxe egingo da:

- Lehenengo eta behin, eskatzaile bakoitzari eman beharreko zenbatekoa gutxitzea; gutxitze hori gehienez diruz laguntzen diren gastu guztien %30ekoa izango da;
- Hala ere aurrekontua gainditzen bada, lehentasunez emango zaizkie ezarritako irizpideen arabera dirusarrerak gutxien duten familia-unitateei.

5. artikulua.— *Emakidaren prozedura*

Dirulaguntza zuzenean ematen da, oinarri-arau hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan eta lege horren 28. artikuluen 2. eta 3. paragrafoetan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 67. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiak daudelako.

Emakidaren prozeduraren arrazoiak:

Laguntza ekonomiko horiek Portugaleteko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude, gizarteratzea sustatzen duten laguntza ekonomikoen ildo estrategikoan, eta mendekotasuna, kalteberatasuna edo babesgabetasun- eta bazterkeria-arriskua duten pertsonen eta kolektiboen autonomia, babesa eta gizarteratzea bultzatzeko helburu estrategikoa dutelarik.

**6. artikulua. — Eskabideen aurkezpena eta epeak**

Eskabideak Portugaleteko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan (San Roke plaza, astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era). Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea oinarri-arau hauen deialdian ezarriko da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

Informazioa eta eskabide-orria arestian aipatutako udal bulegoetan egongo dira. Halaber, Udal webgunean (www.portugalete.org).

7. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileak honako agiriak aurkeztuko ditu:

- a) I. Eranskina, hauexek dituena:
 - Dirulaguntzarako eskabide-orria.
 - Banketxearen datuak.
 - Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izatea eragotzen duten ingurubarretako batean ere ez dagoela adierazten duen aitortpena.
- b) Eskatzailearen eta, behar izanez gero, bizikidetza-unitateko kide guztien NANen fotokopiak edo familia-liburuaren fotokopia.
- c) Familia Ugariaren titulu ofizialaren fotokopia, eskabide-datan behar bezala eguneratua.
- d) Azken errenta-aitortpena (PFEZ), edo, halakorik ezean, azken zerga-ekitaldiko ondasunen eta errentaren ziurtagiria, eskatzailearen eta 18 urtetik gorako bizikidetza-unitateko kide guztien Bizkaiko Foru Ogasunak emana.
- e) II. Eranskina. Banketxearen ziurtagiria, Udalak aldeztatu ez badu.

Halaber, Udalaren gizarte zerbitzuek espedienteak izapidetzeko behar duten beste edozein agiri eskatu ahal izango diote eskatzaileari. Eskatutako agiriak aurkezteari uko egiteak, gezurrezko datuak azaltzeak, datuen bat isiltzeak eta dirulaguntza lortzeko edozein iruzurrek berez ekarriko dute dirulaguntza ezestea, hortik etor daitezkeen beste lege-erantzukizun batzuk alde batera utzi gabe.

8. artikulua. — Organo eskuduna eta ebazpena

Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Sailak baloratuko ditu eskabideak. Ondoren, behin proposamena eginda, Alkatetzari aurkeztuko dizkio hark onetsi ditzan.

Portugaleteko Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Sailari dagokio, organo instruktorea den aldetik, ebazpen-proposamena egiteko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jardura guztiak egitea.

Prozedura ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, Udalak laguntza horiek eskatzeko adierazitako epea amaitzen den egunetik aurrera.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio-prozedurari buruzko legerian aurreikusitako moduan eta epean jakinaraziko dira.

Ebazteko gehieneko epea behin igarota, berariazko ebazpenik tartean egon ezik, dirulaguntzaren emakida ezetsizat joko da.

9. artikulua. — Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira hala edozein Administrazio Publikok nola erakunde publiko edo pribatuk eman ditzaketenekin, baldin eta helburu bera badute.

**10. artikulua.— *Araubide juridiko aplikagarria***

Dirulaguntza horiek honako oinarri-arau hauen arabera arautuko dira: oinarri arautzaile hauen arabera; Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera; Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen arabera; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren arabera.

11. artikulua.— *Aurrekontuko zuzkidura*

Dirulaguntza hauen emakida izango da deialdian aipatzen den diru-kopurua, ekitaldi bakoitzean Udalaren Aurrekontuaren barruan helburu horretarako esleitutakoa, hain zuzen ere.

12. artikulua.— *Dirulaguntzen emakidaren publizitatea*

Ez dira argitara emango Portugaleteko herritarrentzako dirulaguntzen ebazpenak, baldin eta baliabide urriak badituzte, publizitate hori onuradunen ohorea, intimitate pertsonala edo familiarra errespetatzearen eta babestearen aurkakoa delako, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilaren arabera, hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 c artikulua aplikatuz.

13. artikulua.— *Xedapen gehigarria*

Arautegi hau Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean (BDNS) argitaratzeaz gain, Udalaren iragarki-taulan Portugaleteko Udalaren Gardentasun Atarian egongo da ikusgai.



II. ERANSKINA / ANEXO II

DATUEN ALTA EDO ALDAKETA / ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS**Pertsona edo entitate interesatuaren ezagupenerako datuak**
Datos identificativos de la persona o entidad interesada

NAN/IFK / DNI/CIF.....
Abizenak eta Izena/Sozietaren izena / Apellidos y nombre/Razón social

Datos bancarios / Banku datuak

Bankua / Banco	Sukutsala / Sucursal
K.D. / D.C.	K/Korrontea / C/Corriente

KOntu korrontearen jabea / Titular de la cuenta.....

Atzerriko diru - kontuetarako soilik // Bankuak bete behar
Sólo para cuentas corrientes en el extranjero // A rellenar por el banco

IBAN

Interesatuaren adostasuna
Conformidad de la persona interesada

Bankuaren adostasuna
Conformidad del banco

Portugalete,

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa bete nahian, jakin ezazu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartuko direla, fitxategi horren ardura Portugaleteko Udalari dagokiola eta Udalak udalerrian diharduten elkarteak eta dirulaguntza eskatzen dutenak erregistratzeko erabiliko duela. Hala nahi duenak une oro eskuratu, zuzendu edo baliogabetu ahal izango ditu bere datuak Portugaleteko Udalaren Erregistro Nagusian (Solar plaza z.g. – 48920 Portugalete).

En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales se informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Terceros Contabilidad», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es el registro de asociaciones que tienen su ámbito de actuación en el municipio y solicitantes de subvención. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento, ubicado en la Plaza del Solar s/n - 48920 Portugalete.